

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

MINDARA ELKARTEA

Mindara Elkarteak 10 urte bete ditu aurten. Ia 60 familia biltzen dituen familia handia da, guztion neurriko mundua eraikitzeko lan egiten duena.



elkarlanean

Hamar urte
potolo bete dituzu,
Urko! Zein zenbaki
polita!

Bai, kontentu nago.
Badakizu, Mindara Elkarteak
ere hamar urte
bete ditu!



Mindara?
Zer da futbol
talde bat?

Ez, aniztasun
funtzionala duten
pertsonek laguntzeko
elkarte bat da.



Ikusi, Urko,
argazki honetan haur
txiki bat zara. Nor da
gurpil aukian dagoen
hau?

Mikel Izagirre da,
Mindararen sortzailea. Tamalez
2019an hil zen. Sekulako lana
egin zuen aniztasun funtzionala
dutenek aukerak izan
ditzaten.

Mindarari esker,
Urko bezala aniztasun funtzionala
duten pertsonak egunero kirolen bat
egiteko aukera daukate. Ikusi, argazki
horretan Urko igerilekuan.

Hemen nago ni,
danborrarekin.

Musikoterapia ere egiten dute.
Musikak mesede egiten digu guztioi.
Baina egun dagoen eskaintza orokorrak
askotan ez ditu kontuan hartzen
dibertsitate funtzionala dutenak.



Hauek nire lagunak dira.

Zenbat lagun dituzun, Urko!
Hemen adin desberdinetako
jendea zaudete...





Sexualitatea, drogak, aisialdia, harremanak... aniztasun funtzionala duten pertsonak nerabezaroa ere izaten dute eta edozein neraberengatik bizipenak dituzte. Kuadrilla osatu eta planak egiten dituzte.

Zenbat gauza egin dituen Mindarak hamar urtetan...



Mindara aniztasun funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako Elkarte da. Bere helburu nagusiak jarduera fisiko inklusiboa, kirol egokitu, aisialdia eta formakuntzaren sustapen eta garapena dira.

Kirola eta jarduera osasungarriak dira elkartearen zutoinak. Haur guztientzat da beharrezkoa kirola; irabazten, galtzen eta taldean mugitzen ikasteko bide ederra baita.



2021eko otsailean hamar urte bete ditu. Pandemi garaia denez, ahal bezala ospatuko dute; esperientziak partekatuko dituzte sare sozialetan, logoa berrituko dute, argazki erakusketa bat prestatuko dute...



Helbidea: Olibet 6, etxabea. 20100 Errenteria
www.mindara.org / info@mindara.org
 Telefonoa: 943345719-616452331